



## UNESCO Etxea 01 koadernoak:

# Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubidea munduan

**Ura eta saneamendua eskuragarri izatea giza eskubidetzat jotzen du Nazio Batuen Erakundeak. Eskubide hori beste eskubide batzuk gauzatzeko ezinbestekoa da, adibidez osasunerako, elikadurarako, etxebizitzarako eta hezkuntzarako eskubideak. Hala eta guztiz ere, gaur egun, munduko leku askotan, eskubide hau oraindik ez da betetzen.**

**Bizkaiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek, esaterako, UNESCO Etxea, giza eskubide hori ezagutzeko, aldeztuko, sustatzeko eta benetan betetzeko proiektuak egiten dituzte, tokian tokiko lekuetan nahiz mundu zabalean.**

### Zer da Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubidea?

Ura izateko Giza Eskubidea honako bost baldintza hauek biltzen dituen ura erabiltzeko eskubide gisa definituta dago:

- **Nahikoa** erabilera pertsonalerako eta etxeko erabilerarako, hau da, edateko, higiene pertsonala egiteko eta saneamendurako, janariak prestatzeko, arropa ikuzteko eta etxea garbitzeko. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, gutxienez **50 litro** ur behar dira, pertsonako eta eguneko, premia oinarritzkoenak estaltzeko eta osasun-arazoak saihesteko.
- **Osungarria**, hau da, giza osasunerako mehatxuak izan daitezkeen mikroorganismo, substantzia kimiko eta arrisku erradiologikorik gabea. **OMEn edateko uraren kalitaterako** Gidek<sup>1</sup> finkatzen dituzte osungarritasun-balioak.
- **Onargarria**, koloreari, zaporeari, usainari eta instalazioen baldintzei dagokionez.
- **Eskuragarria**. Ur-iturriak etxetik hurbil egon behar du. OMEn arabera, distantzia horrek **1 kilometro** baino gutxiago izan behar du eta desplazamendu-denborak ez du izan behar **30 minututik** gorakoa.
- **Prezio egokian**. Denek izan behar dute ura, zerbitzuak eta instalazioak ordaintzeko aukera. Garapenerako Nazio Batuen Programak iradokitzen du uraren kostuak ez duela izan behar etxeko diru-sarreraren % **3** baino gehiago.

Halaber, **Saneamendua** izateko Giza Eskubideak komun baterako edo irazteetarako eta hondakin-uretarako instalazio baterako sarbidea **higiene- eta pribatutasun-baldintza egokietan** eta denentzako giro garbi eta osasuntsua bermatuz izatea eskatzen du. **Eskuragarria, kulturalki egokia eta generoarekiko sentikorra** izan behar du.

### Zer da Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubidea?



1 Edateko ura kalitaterako Gidak. [www.who.int/water\\_sanitation\\_health/dwq/gdwq3rev/es/](http://www.who.int/water_sanitation_health/dwq/gdwq3rev/es/)



Gazte bat ontzi bat betetzen Boli Kostan  
(UN Photo/Ky Chung)

Gogoratu beharra dago, bizitzarako ezinbesteko elementu gisa, eskubide hori modu **iraunkorrean** erabili behar dela, eskubide hori etorkizuneko belaunaldientzat arriskuan ez jartzeko; eta inolako **diskriminaziorik gabe**, kontuan hartuta ahulago diren (emakumeak, neskak, desgaituak, etab.) edo sarritan bazterten dituzten (errefuxiatuak, herri indigenak, etab.) jakineko pertsona-multzo batzuen premiak. Espezifikoki, garapen bidean diren herrialdeetako ur-hornidura gehienetan emakumeek eta neskek egiten duten jardura da. Horiek arduratzen dira baliabide hori jasotzeaz familiaren hornikuntzarako, denbora hori garapen pertsonalerako edo ekonomia-jardueretarako erabili beharrean.

Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubideak kontuan izan behar dituen beste alderdiak urarekin zerikusia duten kontuei buruzko **informazioa eskura izatea** eta uraren eskubidearen erabilerari eragin diezaioketen **erabakitze prozesuetan parte hartzea** dira.

Horrekin guztiarekin, eta harrigarria badirudi ere, ura eta saneamendua Giza Eskubide gisa aitortzea lorpen berri samarra da. 2010ean lortu zen eta eragile askoren baterako lanaren emaitza izan zen, besteak beste, nazioarteko erakunde, estatu eta gizarte zibileko erakundeen baterako lanaren emaitza. UNESCO Etxea izan zen giza eskubide hori aitortzeko nazioarteko eragin politikoaren esparruan lan egin zuen erakundeetako bat.

## Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubidearen gaur egun arterainoko mugarri nagusiak Nazioarteko Agendan

Nazio Batuen Erakundea (NBE) duela 70 urte sortu zen eta, harrezkero, gobernuen arteko foroak, eztabaidak, gailurrak eta bilerak antolatu ditu mundu osoari eragiten dioten arazoei aurre egiteko, hobekuntza globalak lortzeko soluzioak bilatzeko eta laneko konpromiso sendoak sinatzeko helburuarekin.

Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubidearen inguruan orain arte lortutako mugarri nagusien artean honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- **1977ko martxoan. Urari buruzko Nazio Batuen Konferentzia.** Urari berariaz eskainitako gobernu arteko lehen konferentzia horretan adierazi zen: "herri guztiek dute, edozein delarik haien garapen-maila edo haien baldintza ekonomiko eta sozialen maila, **edateko ura izateko eskubidea**, beren oinarritzko premien arabera **kantitatean eta kalitatean**".
- **1992ko urtarrila. Urari eta Ingurumenari buruzko Nazioarteko Konferentzia.** Dublingo Adierazpeneko<sup>2</sup> 3. Printzipioan aitortzen da "**emakumeak duen funtsezko zeregina** uraren horniduran, kudeaketan eta babesean"; eta 4. Printzipioaren bidez xedatzen da "...funtsezkoa da **ur garbia eta saneamendua arrazoizko prezioan** izateko gizaki guztiek duten oinarritzko eskubidea onartzea".

2 Dublingo Adierazpena. [www.wmo.int/pages/prog/hwpr/documents/english/icwedece.html#p4a](http://www.wmo.int/pages/prog/hwpr/documents/english/icwedece.html#p4a)

- **1999ko abendua. Nazio Batuen 54/175 Ebazpena<sup>3</sup>.** Hauxe dio 12. artikulua: “Janaria eta ur garbia izateko eskubidea oinarritzko giza eskubideak dira eta horiek sustatzea **agindu morala da gobernu nazionalentzat nahiz nazioarteko komunitatearentzat**”.

- **2002ko azaroa. 15. Oharpen Orokorra<sup>4</sup>. Ura izateko eskubidea.** Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak onartu zuen honako hau jasotzen duen Oharpena: “ura izateko giza eskubidea ezinbestekoa da duintasunez bizitzeko”, eta ñabardura bat egiten du, hain zuzen ere, ura izateko giza eskubideak eskatzen duela “erabilerako eta etxeko erabilerarako ur nahikoa, osasungarria, onargarria, eskuragarria eta prezio egokian izatea”. Gainera, pertsonak urarekin duten erlazioak alderdi soziokulturalak hartzen ditu eta, horregatik, “ondasun sozial eta kultural gisa hartzen da, eta ez ondasun ekonomiko gisa”.

- **2010eko uztaila. Nazio Batuen 64/292 Ebazpena<sup>5</sup>.** Batzarrak lehen aldiz onartu zuen ofizialki “**ura eta saneamendua izateko eskubidea bizitza bete eta giza eskubide guztiak osorik izateko giza eskubidea zela**”. Ebazpen hori Boliviako Nazio Anitzeko Estatuaren ekimenez onartu zen. Ebazpena babesteko kanpaina aktibo baten buru izan zen eta, azkenean, 122 herrialdek babestu zuten.

- **2015eko abendua. Nazio Batuen 70/169 Ebazpena<sup>6</sup>.** Lehen aldiz bereizi ziren ura eta saneamendua izateko giza eskubideak. Horrela, eskubide bakoitzaren berezitasunak nabarmentzea eta saneamendua izateko eskubidea indartzea lortu zen.



Nazio Batuen Batzar Nagusia New Yorken  
(UN Photo/Eskinder Debebe)



Letrina bat Filipinetan (Zabalketa)

Ura eta saneamendua Giza Eskubide gisa aitortzea garrantzi handiko mugarria izan da hura sustatzeko, defendatzeko eta bermatzeko. **Legezko betebeharrak unibertsalaren** dimentsioa sartzen du, estatu guztiak lotzen dituen haiek betetzeko baliabide egokiek, eta legeak, politikak eta programak onartzera behartzen dituena.

3 Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpena: A/Res/54/175 “Garapenerako eskubidea”

4 Nazio Batuetako Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen 15. Oharpen Orokorra

5 Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpena: A/Res/64/292 “Ura eta saneamendua izateko giza eskubidea”. [www.un.org/en/ga/search/view\\_doc.asp?symbol=A/RES/64/292&Lang=S](http://www.un.org/en/ga/search/view_doc.asp?symbol=A/RES/64/292&Lang=S)

6 Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpena: A/Res/70/169 “Edateko ura eta saneamendua izateko giza eskubideak”. [www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/70/169](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/70/169)



## Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubidea nazioarteko agendan

2000ko irailean, 189 herrialdetako agintariak Milurteko Adierazpena<sup>7</sup> sinatu zuten. Adierazpen horretan gosearen, osasunaren, hezkuntzaren eta ingurumenaren inguruko konpromiso batzuk hartu zituzten. Konpromiso horiek 2015ean lortu beharreko jakineko zifradun garapen-xedeak zituzten, zortzi helburutan bilduta: Milurteko Garapenerako Helburuak (MGH). Ura eta saneamendua izateari buruzko xedeak planteatzen zuen "erdira murriztea mundu osoan edateko uraren eta saneamenduko oinarritzko zerbitzuen sarbide iraunkorrik ez duten pertsonen ehuneko".

Milurteko Adierazpena izan zen garapen-arloko nazioarteko lehen akordio handia eta pobrezia ezabatzearen garrantzia nabarmendu zuen. Hain zuzen ere, gobernuak eta gizarte zibila ordura arte ez bezala mugitzen hasi ziren lan-esparru komun batean.

2015ean, MGH lortzeko epea agortu zenean, Nazio Batuek txosten<sup>8</sup> bat argitaratu zuten. Txostenean 1990 eta 2015 arteko aurrerapenak aurkeztu ziren, baina planteatutako xede asko ez zirela lortu ere adierazi zen.

Bestalde, denbora horretan egindako aurrerapausoak oso desberdinak izan dira herrialde batzuen eta besteen artean eta herrialde bakoitzaren barruan, eta pertsona pobreenek eta ahulenek bizi-baldintza kezkarriak jasaten jarraitzen dute. Saneamendua izateari dagokionez, edateko uraren ingurukoak baino askoz lorpen apalagoak izan dira. Hainbat eta hainbat herrialdetan ez da jotzen lehentasuneko arazotzat.

Horren ondorioz, nazioarteko komunitateak beste agenda bat zehaztu zuen 2015en ondorenerako, **Agenda 2030**. Oraindik gogobete gabeko premiei aurre egiteko baterako lan-esparrua ezarri du agenda berriak.

Egungo datuek<sup>9</sup> gogorarazten digute 2016an, oraindik ere:

- 663 milioi pertsonak ez dutela edateko ur-iturririk
- 2.400 milioi lagunek ez dutela komunik edo saneamenduko oinarritzko beste zerbitzurik
- Munduan 1.000 ume inguru hiltzen direla egunero uraren kalitate txarrekin edo saneamendurik ez izatearekin zerikusia duten gaixotasunengatik.

**Gauzak horrela, UNESCO Etxea euskal gizarte zibilarekin batera lanean ari da, prestakuntzaren, sentsibilizazioaren eta eragin politikoaren bidez, munduan ura eta saneamendua izateko giza eskubidea aitortu eta eskura izan dadin.**



Emakumeak putzu batetik ura ateratzen Ipar Darfurren  
(UN Photo/Albert Gonzalez Farran)

7 Nazio Batuek, Milurteko Adierazpena. [www.un.org/spanish/milenio/ares552.pdf](http://www.un.org/spanish/milenio/ares552.pdf)

8 Milurteko Garapenerako Helburuei buruzko Txostena 2015. [www.un.org/es/millenniumgoals/pdf/2015/mdg-report-2015\\_spanish.pdf](http://www.un.org/es/millenniumgoals/pdf/2015/mdg-report-2015_spanish.pdf)

9 Uraren eta saneamenduaren gaineko Garapen Iraunkorrerako Helburuaren zifrak eta datuak. [www.un.org/sustainabledevelopment/es/water-and-sanitation/](http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/water-and-sanitation/)

**Egilea:** UNESCO Etxea eta Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo

**Argazkiak:** UNESCO Etxea, Zabalketa, UN Photo | **Kofinantziazioa:** Bizkaiko Foru Aldundia | **Diseinua eta maketazioa:** Seteseoito | **Inprimaketa:** Imprenta Garcinuño

| **Lege Gordailua:** BI-371-2016

DHAS Bizkaiko taldearen, UNESCO Etxearen, eta Zabalketaren web-orrietan ere eskuragarri dago, gaztelaniaz nahiz euskaraz

[www.forobizkaiadhas.org](http://www.forobizkaiadhas.org) / [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org) / [www.zabalketa.org](http://www.zabalketa.org)